

BARKAMENAREN HAZIA

June Manjarrés Castro

Oiartzun

Ni nintzen zure otso ausarta,
eta, gauero, zugana joaten nintzen
zure zilarrezko argiaz bideratuta.
Gu ginen elkarri eskua helduta geunden panpinak
berriro ere elkar ikusteko, segundoak kontaktzen
genituenak.

Neguko elur hotza, udaberriko txorien kantu
alaiak,
kolore biziz josirik zeuden zelaiak udan,
baita udazkenean haizeak dantzari zeramatzan
hosto gorriak ere.
Hori guztia ginen gu biok, elkarrekin,
munduari gure maitasun pikorra eskaintzen genio-
nak.

Zergatik?

Nire galdera.

Egunero ohean sartutakoan, eta esnatutakoan egi-
ten dudan galdera.

Zure agur gutuna irakurri nuen momentutik,
ahotsa dardarka nuen bitartean, hasi zen dena.

Itsasora joan naiz zure irudiaren bila,
baina olatuek eraman dute, betirako.
Hondartzara, zure oinatzak zein norabiderantz
doazen bilatzeko,
baina haizeak estali ditu, hondarrez,
beste maitemindu batzuek bere oinatzak uzteko.
Ez dut etsi, basora joan naiz,
hego-haizeak zure usain gozoa ekar ziezadan.
Alferrik, dena, guztia, alferrik.

Orain, bakardadearen atzamarrak bihotzean sartu-
rik dauzkadanean,
eta nire munduan kolore beltza nagusi denean,
berriro ere agertu zara.
Ni aurpegira ezin begiraturik,
eta malkoak lurrera, tantaka eroriz;
azkenean, putzuan egin duzun arte.

Barkatu, da zure ahotik atera den hitz bakarra.

Nire maitasunaren indarra hain da handia,
zugana besoak irekitzen dizkidala.
Nire bihozmina kea bezala desagertu da.
Landa dezagun elkarrekin barkamenaren hazia.